



## **PROIEKTUAREN MEMORIA:**

### **Taldearen datuak**

**Izena:** Botanica xaboi naturalak.

**Eskola:** Arantzazuko ama BHI

**Gela:** DBH 3A

**Taldeakideak:** Nora Becerra , Alex Gonzalez, Asier Martinez eta Aroa Hernandez.

**Harremanetarako zenbakia:** 655 130 228 (ALEX)

- **Proiektuaren izenburua eta taldearen izena**

Proiektuaren izenburua eta taldearen izena, **Botanika xaboi naturalak** da, partaide guztioi izen originala eta aproposa iruditu zitzaigulako egin nahi genuenarentzat. Proiektuaren atal nagusi bat xaboiak nola egiten irakastea bait zen eta bestea plastikoaren erabilera kosmetikoetan murriztearen garrantzia azaltzea.

Proiektuaren helburua herriko edo jubilatuekin tailer bat egitea zen, beraiei mikroplastikoen kosmetikoetan eta garbiketara produktuetan duten presentziaz ohartarazteko, guretzat berria eta nahiko inpaktagarria izan zelako. Gaiarekin lotuta zerbait berria irakastea ere bai pentsatu genuen, xaboiak egitera animatuz, eta ez erostera Gure taldeko partaideak, konturatu gara, kosmetikoetan produktu plastiko asko dagoela eta soluzio egoki bat bilatu nahi diogu. Jendeak gogoan izateko ,plastikoa erosten ari direla eta beraien gorputzetan plastikoa sartzen ari direla, eta beraz hobe dela etxean egitea edo plastikorik gabeko alternatibak bilatzea.

- **Proiektuaren deskribapena**

Proiektuarekin lortu duguna, haurrek eta jubilatuek, etxean dituzten kosmetikoen mikroplastiko asko dituztela jakitea izan da. Irakasleak bideo bat erakutsi eta gero, kosmetikoetan zeuden mikroplastikoak ikusi genituen, eta oso oso harrিতuta gelditu ginen. Horrekin gogoratu eta informazio hori zabaltzeko proiektu hau egin dugu. Horretarako aurkezpen bat prestatu dugu.

Bertan bideo inpaktagarri bat eta garbikariek eta kosmetikoek mikroplastikoak dituzten edo ez jakiteko aplikazioa (web orria) erakutsi dizkiegu. Xaboi naturalak ere egiten ikasi dute eta horrela beraien etxeetan egin dezakete eta horrekin mikroplastikoen erabileraren murrizketa lortu eta osasunean eragin. Hasieran jubilatuekin egitea pentsatu genuen, ziurrenik gaiaren inguruan jakingo ez zutelako, baina asko kostatu zitzaigun beraiekin harremanetan jartzea (emaila bidali genien, guasapez idatzi eta baita telefonoz saiatu ere). Etsita geundenean irakasleak eskolako haurrekin egiteko ideia eman zigun, ez zen gure hasierako asmo, baina hori egin genuen, haiekin ordu pare bat hitzartu eta LH5 eta LH6ko 36 haurrekin egin genuen. Haurrena egiteko bezperan jubilatuek eskolara deitu zuten tailerra egiteko prest zeudela, eta beraz datorren astean beraiekin egingo dugu. Kartela prestatu eta eraman diegu jubilatuen etxean jar dezaten izen ematea orriarekin batera. Haurrekin oso ondo atera zen eta espero dugu jubilatuekin ere horrela edo hobeto ateratzea oraindik. Haurrekin egin dugun tailerrean oso ondo pasatu dugu, oso dibertigarria izan zen eta ziur datorren astean jubilatuekin ere oso ondo joango dela. Proiektua aurrera ematean jaboia egiten ikasi dugu (gutako inork sekula ez zue egin eta), eta baita bestelako taldeekin lan egiten, eta ardurak hartzea zein zaila den askotan.

### **Argazkiak, posterrak edo bestelako dokumentuak**

Aurkezpena

<https://docs.google.com/presentation/d/1bV5wtxfCks23nOiN2zC7jqBJglvIm4yoykMmq0rCiUo/edit#slide=id.p>

 [Botanica aurkezpena fitxategiaren kopia](#)

Bideoa [https://youtu.be/1\\_lqumdo2SU](https://youtu.be/1_lqumdo2SU)

Mikroplastikoen presentzia aztertzeke web orria: <http://www.beatthemicrobead.org/product-lists/>



- **Komunikazioa plana:**

Aurkezpen bideoaren esteka: [https://studio.youtube.com/video/MMDk\\_0FJFVE/edit](https://studio.youtube.com/video/MMDk_0FJFVE/edit)

Amaiera bideoaren esteka: <https://youtu.be/6eiVyoo6tiw>